



ZUBIZARRETA

**DONOSTIA-SAN SEBASTIAN  
HILETA ZERBITZUAK, S.A.**

**Auditore independente batek egindako  
urteko kontu laburtuen ikuskaritza-txostena**

**-2023ko ekitaldia-**



ZUBIZARRETA

**ARABA**

San Antonio, 2 bajo  
01005 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 001 925

San Antonio, 2 - 1º of. 7-8  
01005 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 271 374

**BIZKAIA**

Gran Vía, 42 principal dcha.  
48011 Bilbao  
Tel.: 944 232 927

**GIPUZKOA**

Prím, 28 entresuelo izda.  
20006 Donostia-San Sebastián  
Tel.: 943 420 577

**MADRID**

Génova, 17-4ºB  
28004 Madrid  
Tel.: 91 319 09 84

**AUDITORÍA**

*Jatorriz gazteleraz egindako urteko kontu laburtuen ikuskaritzako txostena.  
Dena den, gazteleraz egindako bertsioak du lehentasuna.*

**AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO  
URTEKO KONTU LABURTUEN IKUSKARITZA-TXOSTENA**

**Donostia Hileta Zerbitzuak SArek akziodunei,**

**Iritzia**

DONOSTIA HILETA ZERBITZUAK SAREN (Sozietatea) urteko kontu laburtuak ikuskaritu ditugu. Urteko kontu hauek, 2023ko abenduaren 31ko balantzeak, eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazien kontuak eta memoriak osatzen dituzte.

Gure iritiz, erantsitako urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, Sozietatearen 2023ko abenduaren 31ko ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzak ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiarekin bat etorritik (memoriaren 2. oharrean adierazten dena), eta, bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipio eta arauekin.

**Iritzia emateko oinarria**

Ikuskaritza lana, Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritzaren arautegia jarraituz egin dugu. Arau horien arabera dagozkigun erantzukizunak, "Urteko kontu laburtuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizunak" atalean zehazten dira.

Sozietatearengandik independenteak gara, Espainiako urteko kontu laburtuen ikuskaritzan jarraitu beharreko etika eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna barne), urteko kontuen ikuskaritzaren arautegian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu kontu-ikuskaritza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da inongo egoerarik gertatu aipatutako araudi-erregulatzaileraren arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jarri zezakeen.

Lortutako ikuskaritza-ebidentziak gure ikuskaritza iritzirako nahikoa eta egokia den oinarria ematen digula deritzogu.

**Ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak**

Gure iritzi profesionalaren arabera, ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak ekitaldi honetako urteko kontu laburtuen ikuskaritzan hutsegite garrantzitsuak egoteko arrisku esanguratsutzat hartutakoak dira. Arrisku hauek, gure ikuskaritzaren testuinguruan eta urteko kontu laburtuen osotasunean hartu dira kontuan, baita horiei buruzko gure iritzian ere, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi bereizirik ematen.



### Pasibo korrontearen eta ez-korrontearen periodifikatzeak

Sozietateak kontratuak egin izan ditu hileta-eskubideengatiko tituluekin, panteoien erabilera 25 eta 75 urte bitarteko aldiatarako lagatzeko. Horregatik, hasiera batean aurreratutako sarreratzat hartuko dira, sortzapen-printzipioarekin bat etorriz, hurrengo ekitaldietan ekitaldi bakoitzeko sarrera gisa egozten diren arte, kontratuen indarraldiaren arabera.

Diru-sarrera aurreratu horiei dagozkien zenbatekoak Sozietateak kontabilizatuta daude balantzearen pasiboaren epe luzeko eta laburreko periodifikatzeen epigrafeetan, 2023ko abenduaren 31n, dagokionaren arabera.

Eragiketa horien garrantzia, formalizatutako kontratuetan araututako baldintzen aniztasuna eta ekitaldiko sarrera gisa aitortu eta periodifikatu beharreko zenbatekoen estimazioak duen konplexutasuna kontuan hartuta, uste dugu zirkunstantzia hori gure auditoretzaren alderdi garrantzitsu bat dela, eta horiek aztertu behar izan direla, Sozietateak jarraitutako prozedurak berrikusi eta berrikusteko kontratu jakin batzuk hautatuta, aplikatutako sistematika eta egindako kalkuluen arrazoizkotasuna zehazteko.

### **Urteko kontu laburtuen inguruan, administratzaileen erantzukizunak**

Administratzaileen erantzukizuna da erantsitako urteko kontu laburtuak egitea, Sozietatearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela adieraziz, Sozietateari aplikatu behar zaion Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioaren araudia jarraituz eta baita iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik gabeko urteko kontu laburtuak prestatzeko beraien ustez egokia den barne kontrola ere.

Urteko kontu laburtuak prestatzean, administratzaileen erantzukizuna Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa moduan jarraitzeko duen gaitasuna balioztatzea da, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin zerikusia duten gaiak adieraziz eta funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz; administratzaileek Sozietatea likidatzeko edo eragiketak amaitzeko asmoa dutenean edo beste aukera errealistatik ez dagoenean izan ezik.

### **Urteko kontu laburtuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizunak**

Gure helburuak hauek dira: urteko kontu laburtuek, haien osotasunean hartuz, iruzurrengatik edota errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta, gure iritzia barneratzen duen ikuskaritza-txostena igortzea.



## ZUBIZARRETA

Arrazoizko segurtasuna ziurtasun maila altua da, baina horrek ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritzaren araudia jarraituz egindako ikuskaritzak existitu daitekeen hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dezakeenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edota errakuntzengatik sor daitezke, eta materialtzat hartuko dira, bai banaka bai batuta hartuta, urteko kontu laburtuetan oinarrituz erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragingo dutela aurreikusten bada.

Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritzaren araudia jarraituz egindako auditoretza lan guztian, eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:

- Urteko kontu laburtuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurreragatik gerta daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzagatik eman daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzematekoa baino altuagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihepenaren ondorioz izan daitezke.
- Ikuskaritzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren ikuskaritza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, Sozietatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- Aplikaturako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoiarritasuna eta administratzaileek emandako informazioa ere.
- Administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duen ondorioztatzen dugu; eta lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Sozietateak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure ikuskaritza-txostenean urteko kontu laburtuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar izaten diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzi-aldatua eman behar izaten dugu. Gure ondorioak, ikuskaritza-txosteneko datara arte lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa izateari utz diezaiolke.
- Urteko kontu laburtuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko kontu laburtuek transakzioak eta hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.



ZUBIZARRETA

Sozietateko administratzaileekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, planifikatutako ikuskaritzaren irismena eta egite datak, eta ikuskaritzan azaldutako arlo esanguratsuak jakinarazteko, baita barne-kontrollean antzemandako balizko gabezia esanguratsuak jakinarazteko ere.

Administratzaileei jakinarazi zaizkien arrisku esanguratsuen artean, egungo urteko kontuen ikuskaritzan adierazgarrienak direnak zehazten ditugu, hauek izanik, ondorioz, gure ustez arriskurik garrantzitsuenak.

Arrisku horiek gure ikuskaritza-txostenean deskribatzen ditugu, baldin eta legezko edo erregelamenduzko xedapenek gaia argitaratzea debekatzen ez badute.

**ZUBIZARRETA CONSULTING, S.L.**  
(ROACen S-0455 zenbakiaz inskribatutako Sozietatea)

Izp.: Xabier Esteban Hernández  
ROACen 23625 zenbakiaz inskribatuta  
(Bazkidea)

Donostian, 2024eko apirilaren 12an.





**DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN**

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.  
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.

Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus  
20012 Donostia / San Sebastián

**DONOSTIA HILETA ZERBITZUAK, S.A.**

**Galera eta irabazien kontu laburtua abenduaren 31n**  
**amaituriko ekitaldiari dagokiona**  
**(Eurotan adierazita)**

	<b>Oharra</b>	<b>2023</b>	<b>2022</b>
<b>ERAGIKETA JARRAITUAK</b>			
- <u>Negozio-zifraren zenbateko garbia</u>	<b>14</b>	<u>1.576.446,52</u>	<u>1.682.138,66</u>
Salmentak		7.940,01	5.492,58
Zerbitzu-emateak		1.568.506,51	1.676.646,08
- <u>Hornikuntzak</u>	<b>14</b>	<u>(188.510,14)</u>	<u>(289.305,45)</u>
Salgaien kontsumoa		(1.957,72)	(924,78)
Beste enpresa batzuek egindako lanak		(186.552,42)	(288.380,67)
- <u>Ustiapeneko bestelako sarrerak</u>		<u>41.854,85</u>	<u>37.683,46</u>
Ekitaldiko emaitzan sartutako ustiapeneko diru-laguntzak		41.854,85	37.683,46
- <u>Langile-gastuak</u>	<b>14</b>	<u>(695.058,51)</u>	<u>(696.369,81)</u>
Soldatak, lansariak eta baliokidetuak		(508.611,05)	(535.731,96)
Gizarte-kargak		(186.447,46)	(160.637,85)
- <u>Ustiapeneko bestelako gastuak</u>	<b>14</b>	<u>(262.939,68)</u>	<u>(184.598,97)</u>
Kanpoko zerbitzuak		(260.845,72)	(193.125,69)
Zergak		(969,23)	(804,91)
Eragiketa komertzialetako galerak, narriadurak eta hornidura-aldakuntzak		(1.124,73)	9.331,63
- <u>Ibilgetuaren amortizazioa</u>		<u>(116.120,80)</u>	<u>(130.921,79)</u>
- <u>Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelako egozpena</u>	<b>10</b>	<u>8.000,00</u>	<u>8.000,00</u>
- <u>Ibilgetuaren narriadura eta besterentzearen emaitza</u>		---	<u>116,16</u>
- <u>Bestelako emaitzak</u>		<u>(671,43)</u>	<u>10.126,00</u>
<b>USTIAPENENKO EMAITZAK</b>		<b>363.000,81</b>	<b>436.868,26</b>
- <u>Sarrera finantzarioak</u>		<u>8.386,73</u>	<u>336,75</u>
Balore negoziagarrien eta bestelako finantza-tresnen sarrerak		8.386,73	336,75
- <u>Gastu finantzarioak</u>		<u>(16.968,98)</u>	<u>(21.333,84)</u>
Hirugarrenetikiko zorrenak		(16.968,98)	(21.333,84)
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>		<b>(8.582,25)</b>	<b>(20.997,09)</b>
<b>ZERGEN AURRETIKO EMAITZAK</b>		<b>354.418,56</b>	<b>415.871,17</b>
- Mozkinen gaineko zerga	<b>12</b>	---	---
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>		<b>354.418,56</b>	<b>415.871,17</b>



**DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN**

► Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.  
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.

Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus  
20012 Donostia / San Sebastián

## **DONOSTIA HILETA ZERBITZUAK, S.A.**

### **TXOSTEN LABURTUA**

2023ko ekitaldia  
(Eurotan adierazita)

#### **1. OHARRA SOZIETATEAREN JARDUERA**

DONOSTIA HILETA ZERBITZUAK, S.A. ((hemendik aurrera “Sozietatea” idatziko duguna) 2001eko irailaren 6an eratu zen. Donostian du helbidea, Polloe plaza, 2 (Gipuzkoa).

2010eko azaroaren 26an egindako Akziodunen Ezohiko Batzarrak, beste erabaki batzuen artean, helburu sozialaren aldaketa partziala erabaki zuen, eta une horretatik aurrera horrela geratu zen zehaztuta:

Sozietateak Errausketa labe eta Hilerri Zerbitzuen kudeaketa, garapena eta ustiaketa du helburu sozialtzat, eta horien barruan honakoak daude:

- a) Udaletako hilerrien kudeaketa eta ustiaketa.
- a) Errausketa-labeen kudeaketa eta ustiaketa.
- c) Hilerriak eta errausketa-labeak kontserbatzea eta mantentzea.
- d) Hildakoen hilerrietako harrera.
- e) Gorpuak edo gorpuzkiak ehorztea, hilobitik ateratzea eta erraustea.
- f) Hilobiak eta horma-hilobiak eraikitzea.
- g) Hilobi eta horma-hilobien inguruko eskubideak ematea besterentzea eta zin egitea.

Jarduera garatzeko udal-erabakiei jarraiki eta horietan ezarritako baldintzak betez burutuko dira helburu horiek.

Jarduera honek iraupen zehaztugabea izango du Sozietatea udal-baltzu pribatua den bitartean, eta berrogeita hamar urteko iraupena izango du Sozietatea Ekonomiako Mistokoa bihurtzen den datatik aurrera. Merkataritza-Erregistroan idatziz jasota geratuko da Udaleko organo eskumendunek emandako administrazio agiri bidez.



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

► Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.  
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.

Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus  
20012 Donostia / San Sebastián

Ezarrিতako epea beteta, Udaletxeari automatikoki itzuliko zaizkio ondasun guztiak, Sozietatearen aktiboa eta errausketa eta hilerriaren zerbitzua emateko instalazioak. Udaletxeak ez du inolako kalte-ordainik ordainduko itzulketa horien truke.

Kasu horretan, Sozietatea desegiteari eta kitatzeari ekingo zaio.

Donostiako udalerrian egiten diren jarduerari dagokienez, Donostiako Udalak eutsi egingo die agintea erabiltzea eskatzen duten eta eskuordetu ezin diren funtzioei.

Sozietatea, zeinaren kapital osoa titulartasun publikokoa baita, Administrazio Publikoaren baliabide propio eta zerbitzu tekniko da, eta bertan akziodun bakarraren izaera du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 24.6 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta hark kontratuak eman ahal izango dizkio, kasu bakoitzerako zehazten diren baldintzetan eta baldintzetan.

Sozietateak ezin izango du parte hartu bertan Akziodun Bakarra den Administrazioak deitutako lizitazio publikoetan; hala ere, lizitatzailerik aurkezten ez bada, lizitazioen xede den zerbitzua betetzeko agindu ahal izango zaio.

Bere jarduera bat dator arestian deskribatutako helburu sozialarekin.

2013ko ekitaldian, 5 urteko indarraldiarekin, programa-kontratu bat sinatu zen Donostiako Udalarekin. Horren bidez, Sozietateak bere gain hartzen du hilerrien zerbitzuaren kudeaketa, eta, horrela, 2003ko otsailaren 20ko aurreko kontratua ordeztzen da.

Sozietateak garatzen dituen jarduerak direla-eta, ez du ingurumen-arloko erantzukizunik, gasturik, aktiborik, homidurarik edo kontingentziarik. Horregatik, memoria honetan ez da jaso ingurumen-gaiei buruzko informazio espezifikorik.



## **2. OHARRA URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK**

### **a) Irudi fidela**

Sozietatearen kontabilitate-erregistroetatik abiatuta egin dira urteko kontuak, eta indarrean dagoen merkataritza-legeriaren arabera eta Kontabilitate Plan Orokorra eta haren ondorengo aldaketak onartzen dituen azaroaren 16ko 1514/07 Errege Dekretuan ezarritako arauen arabera aurkeztu dira, bai eta nahitaezko kontabilitate-arloko lege-xedapenen arabera ere, sozietatearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela erakusteko.

Sozietateko Administratzaileek formulatu dituzte 2023ko ekitaldiko urteko kontuak, eta Akziodunen Batzar Nagusiak onartu zain daude, aldaketarik gabe onartuko direla uste baita.

Akziodunen Batzar Orokorrak 2023ko maiatzaren 4ean onartu zituen 2022ko ekitaldiko urteko kontuak.

### **b) Erabilitako kontabilitate-oinarriak**

Urteko kontu hauek egiteko aplikatutako kontabilitate-printzipio eta -irizpideak memoria honetako 4. oharrean adierazitakoak dira. Printzipio eta irizpide horiek nahitaez aplikatu beharrekoak dira, eta ez dira aplikatu nahitaezkoak ez diren kontabilitate-printzipio edo -irizpideak.

### **c) Ziurgabetasunaren balorazio eta balioespenari buruzko alderdi kritikoak**

Urteko kontuak prestatzeko, etengabe ebaluatzen diren eta esperientzia historikoan eta beste faktore batzuetan oinarritzen diren etorkizunarekin lotutako zenbatespen eta judizio batzuk erabili behar ditu Sozietateak, zirkunstantzien arabera arrazoizkoak diren etorkizuneko gertaeren itxaropenak barne.

### **d) Sozietatearen eraketa**

Donostiako Udalak erabaki zuen sozietatea eratzea, bere helburu soziala osatzen duten zerbitzuak kudeatzeko modurik egokiena zela iritzita. Zerbitzu horiek udalak berak egiten zituen lehenago, hilerriaren eta errausketa-labearen jarduerari zegokionez, eta Zorroaga Fundazioak, berriz, emakida bidez, hileta-zerbitzuei zegokienez.



Sozietatea Donostiako Segura Zurbano notarioaren aurrean egindako eskritura publikoaren bidez eratu zen, 2001eko irailaren 6an (2.787 protokolo-zenbakia).

Sozietatea eratzeko kapitala 1.292.100 eurokoa izan zen eta diruzkoak ez diren ekarpenen bidez ordaindu zen ondorengo xehetasunen arabera:

- Ondasun-elementuak:
  - Zorroagako Beilatokiko altzariak eta makineria
  - Ehorztetxeko altzariak.
  - Ekipo informatikoak.
  - Ibilgailuak.
  
- Errausketa-labearen erabilerarako eskubidea berrogeita hamar urtez.

Guztira 1.292.100 eurotan baloratu da. Kontabilitate-kontukako banaketa estimazioen arabera egin da.

Bestalde, Donostiako Udalak 2000ko urriaren 26an hartutako erabakiaren arabera, jaso geratu zen eratutako Sozietatearen kapitalari egindako ekarpena honakoa izango zela: errausketa-labearen eraikina eta instalazioak erabiltzeko eskubidea eta hileta zerbitzuen likidazio balioa osatzen duten ondasunak, eskubideak eta kargak, partida zirkulatzailer aktibo zein pasiboetan eragina duten saldoak sartuta daudela. Horregatik, hileta zerbitzuen jardueratik eratorritako ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiak erregistratu ditu Sozietateak, eraketa eskrituran jasota ez badaude ere.

Hau izan zen balioen erregistroa eratu zen unean:

Kontabilitate-kontua	Kargu (Abonu)
- Ibilgetu ez-materiala	350.688,89
- Ibilgetu materialaren kostu balioa	1.093.004,78
- Amortizazio metatua ibilgetu materiala	(151.593,67)
- Finantza ibilgetua	4.988,40
- Aktibo zirkulatzailer	1.068.086,86
- Kapital diru-laguntzak	(37.197,85)
- Pasibo zirkulatzailer	(336.031,05)
- Donostiako Udalaren aldeko zorra	(699.836,36)
- Kapital ekarpenaren zenbatekoa	1.292.100,00



e) **Informazioa alderatzea**

2023ko ekitaldiko urteko kontuak egiteko, aurreko ekitaldiko urteko kontuak burutzeko erabili ziren printzipio eta balorazio-arau berberak erabili dira.

f) **Kontabilitate balioespenen aldaketak**

Kontabilitatearen balioespenen aldaketatzat joko dira ondokoak: aktiboen edo pasiboen kontabilitate balioan egindako doikuntzak, edo aktibo baten geroko kontsumoaren zenbatekoan egindakoak; doikuntza horiek egiten dira Sozietateak informazio gehigarria lortu duelako, esperientzia handiagoa duelako edo beste egitate batzuk ezagutu dituelako.

Kontabilitate balioespenen aldaketak geroko moduan aplikatzen dira, eta haren eragina dagokion eragiketaren izaeraren arabera egotziko da, ekitaldiko galdu-irabazien kontuko diru-sarrera edo gastu gisa.

3. OHARRA **EMAITZEN BANAKETA**

Administrazio Kontseiluak emaitzen banaketa hau proposatuko dio Akziodunen Batzar Nagusiari:

	ZENBATEKOA
<b><u>BANAKETA OINARRIAK</u></b>	<b><u>354.418,56</u></b>
- Galerak eta irabaziak (Mozkinak)	354.418,56
<b><u>BANAKETA</u></b>	<b><u>354.418,56</u></b>
- Borondatezko erreserbara	354.418,56



#### **4. OHARRA BALORAZIO ARAUAK**

Hona hemen urteko kontuak egiteko aplikatu diren kontabilitate-irizpide esanguratsuenak:

##### **a) Ibilgetu ukiezina**

Ibilgetu ukiezinaren balioa, funtsean, errausketa-labea erabiltzeko eskubideari esleitutakoak osatzen du, eta hori Sozietatearen eraketan egindako erregistrotik ondorioztatzen da.

Ibilgetu ez-materiala osatzen duten elementuen amortizazioa haien bizitza erabilgarriaren arabera egiten da, honako xehetasun honen arabera:

	Bizitza erabilgarriko urteak
- Errausketa-labearen erabileraren eskubideak	50
- Industria-jabetza	4
- Informatika-aplikazioak	3

##### **b) Ibilgetu materiala**

Sozietatea eratzean emandako ibilgetu materialeko elementuen balioa hileta-zerbitzuen jarduerari buruzko Zorroaga Fundazioaren erregistroetan zuen kontabilitate-balio garbiaren arabera erregistratu zen.

Ondorengo inbertsioak eskuratze-kostuaren arabera balioesten dira.

Elementu horien amortizazioa linealki egiten da, bakoitzari esleitutako bizitza erabilgarriaren arabera.

Ibilgetuko elementuei esleitutako balio-bizitza motak honako hauek dira:

	Bizitza erabil.
- Eraikinak	50
- Makineria	4
- Instalazioak	4
- Altzariak	8
- Informazioa prozesatzeko ekipoak	4
- Garraio-elementuak	5



### c) **Finantza-aktiboak**

#### **Sailkapena**

Sozietateak dituen finantza-aktiboak kategoria hauetan sailkatzen dira:

#### \* **Kostu amortizatuko aktibo finantzarioak**

Barne hartzen ditu aktibo finantzarioak, baita merkatu antolatu batean negoziatzeko onartutakoak ere, baldin eta Sozietateak inbertsioari eusten badio kontratua gauzatzetik eratorritako eskudiru-fluxuak jasotzeko helburuarekin, eta aktiboaren kontratu-baldintzek, zehaztutako datetan, eskudiru-fluxuak sorrarazten dituzte, hau da, printzipalaren kobrantzak eta ordaintzeko dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak. Oro har, kategoria honetan sartzen dira:

- Eragiketa komertzialengatiko kredituak: kobrantza geroratuko trafiko-eragiketen ondoriozko ondasunen salmentan edo zerbitzuak ematean sortutakoak, eta
- Eragiketa ez-komertzialengatiko kredituak: Sozietateak emandako mailegu edo kreditu eragiketetatik datoz, eta horien kobrantzak zenbateko jakin edo zehazgarrikoak dira.

#### \* **Ondare garbian aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioak**

Kategoria honetan sartzen dira kontratu-baldintzek diru-fluxuak sorrarazten dituzten aktibo finantzarioak, zehaztutako datetan. Fluxu horiek printzipalaren kobrantzak eta falta den printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak dira soilik, eta ez dira negoziatzeko mantentzen, eta ez dira aurreko kategorian sailkatzen. Kategoria honetan sartuko dira, halaber, ondare-tresnetan egindako inbertsioak, Sozietateak hasierako aintzatespenean atzera bueltarik gabe izendatutakoak, baldin eta negoziatzeko mantentzen ez badira eta kostuan baloratu behar ez badira.

#### \* **Kostuko finantza-aktiboak**

Honako inbertsio hauek sartzen dira kategoria honetan:

- a) Taldeko enpresen, talde anitzekoen eta elkartuen ondare-tresnak;
- b) arrazoizko balioa fidagarritasunez zehaztu ezin zaien ondare-tresnak, eta inbertsio horien azpian dauden deribatuak;
- c) arrazoizko balioa fidagarritasunez zenbatetsi ezin zaien aktibo finantzario hibridoak, kostu amortizatuan kontabilizatzeko baldintzak betetzen direnean izan ezik;
- d) partaidetzako kontu-kontratueta eta antzekoetan egindako ekarpenak;
- e) interes kontingenteak dituzten partaidetza-maileguak;



f) hurrengo kategorian sailkatu beharko liratekeen finantza-aktiboak, baina arrazoizko balioa ezin da modu fidagarrian kalkulatu.

Taldeko enpresatzat hartzen dira Sozietatearekin kontrol-harreman baten bidez lotutakoak, eta elkartutako enpresatzat, berriz, Sozietateak eragin nabarmena duen enpresak. Horrez gain, talde anitzeko kategoriaren barruan sartzen dira, akordio baten ondorioz, bazkide batekin edo gehiagorekin batera kontrolatzen diren sozietateak.

\* **Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioak**

Negoizatzeko mantendutako aktibo finantzarioak eta aurreko kategorietan sailkatu ez diren aktibo finantzarioak barne hartzen ditu. Era berean, kategorian honetan sartzen dira Sozietateak hasierako aintzatespenaren unean aukeran izendatzen dituen finantza-aktiboak, bestela beste kategorian batean sartuko liratekeenak, izendapen horrek balorazio-inkoherentzia edo kontabilitateko asimetria ezabatzen edo nabarmen murrizten duelako.

**Hasierako balorazioa**

Finantza-aktiboak, oro har, hasieran entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzioaren kostuak gehituta erregistratzen dira. Hala ere, galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioan erregistratutako aktiboei zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuak ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira.

Mendeko sozietatearen gaineko kontrola ematen duten Taldeko enpresen ondarean egindako inbertsioen kasuan, inbertsioa eskuratzearekin zerikusia duten legezko aholkulariei edo bestelako profesionali ordaindutako ordainsariak galdu-irabazien kontura egotzen dira zuzenean.

**Ondorengo balorazioa**

Kostu amortizatuko aktibo finantzarioak balorazio-irizpide hori aplikatuta erregistratuko dira, eta sortutako interesak galdu-irabazien kontura egotziko dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.

Ondare garbian aldaketak dituzten arrazoizko balioaren kategorian sartutako aktibo finantzarioak arrazoizko balioan erregistratuko dira, besterentzean izan litezkeen transakzio-kostuak kendu gabe. Arrazoizko balioan gertatzen diren aldaketak zuzenean erregistratuko dira ondare garbian, aktibo finantzarioak balantzetik baja eman edo narriatu arte, eta, une horretan, horrela aintzatetsitako zenbatekoa galdu-irabazien kontura egotziko da.



Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioak arrazoizko balioan balioztatzen dira, eta arrazoizko balio horretan izandako aldaketen emaitza galdu-irabazien kontuan erregistratzen da.

Taldeko enpresetako, enpresa elkartuetako eta talde anitzetako inbertsio gisa sailkatutako inbertsioak kostuaren arabera balioesten dira, narriaduragatik egindako balio-zuzenketen zenbateko metatua kenduta, hala badagokio. Zuzenketa horiek honela kalkulatu dira: kontabilitate-balioaren eta zenbateko berreskuragarriaren arteko aldea, hau da, arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak eta inbertsioetik eratorritako etorkizuneko eskudiru-fluxuen balio eguneratuaren arteko zenbateko handiena. Zenbateko berreskuragarriaren ebidentzia hoberik ezean, erakunde partaidetuaren ondare garbia hartzen da kontuan, balioespenaren datan dauden ezkutuko gainbalioek zuzenduta (merkataritza-fondoa barne, halakorik balego).

Zehazki, eta merkataritza-zordunei eta kobratu beharreko beste kontu batzuei dagozkien balio-zuzenketei dagokienez, Sozietateak balio-zuzenketak kalkulatzeko erabili duen irizpidea, baleude, saldo horien arrazoizko balioa kalkulatzea da, zenbatetsitako etorkizuneko kobrantzen arabera.

### **Finantza-aktiboen baja**

Sozietateak baja ematen die aktibo finantzarioei, dagokion aktibo finantzarioaren eskudiru-fluxuen gaineko eskubideak iraungitzen direnean edo laga direnean, eta nabarmen transferitu dira bere jabetzari datxezkion arriskuak eta mozkinak, hala nola aktiboen salmenta irmoetan, «Factoring» eragiketetako kreditu komertzialen lagapenetan, baldin eta enpresak ez badu inolako kreditu- edo interes-arriskurik atxikitzen, aktibo finantzarioen berrerosteko-itunpeko aktibo finantzarioen salmentetan edo inolako finantza-baloreen atxikipenetan.

Aitzitik, Sozietateak ez die baja ematen aktibo finantzarioei, eta jasotako kontraprestazioaren zenbateko bereko pasibo finantzario bat aitortzen du, bere jabetzari datxezkion arriskuak eta mozkinak funtsean atxikitzen diren aktibo finantzarioen lagapenetan, hala nola efektuen deskontua, baliabide instrumentala duen “errekurtsodun factoringa”, berrerosteko itunak dituzten aktibo finantzarioen salmentak prezio finkoan edo salmenta-prezioan gehi interes bat, eta aktibo finantzarioen titulazioak, non enpresa lagatzaileak espero diren galera guztiak funtsean xurgatzen dituzten mendeko finantzazioak edo bestelako bermeak atxikitzen dituen.



#### d) Izakinak

Artikulu komertzialez osatutako izakin guztiak eskuratze-kostuan balioesten dira. Izakinen balio bihurtgarria kostua baino txikiagoa denean, dagozkion balioespen-zuzenketak egingo dira, eta galdu-irabazien kontuan gastu gisa kontabilizatuko dira. Balio-zuzenketa eragiten duten inguruabarrak desagertu egiten badira, zuzenketaren zenbatekoa itzuli egingo da, eta diru-sarrera gisa aitortuko da galdu-irabazien kontuan.

#### e) Finantza-pasiboak

Sozietateak bere gain hartutako edo egindako pasibo finantzarioak balorazio-kategoria hauetan sailkatzen dira:

##### \* Kostu amortizatuko pasibo finantzarioak

Sozietateak dituen eta enpresaren trafiko-eragiketengatik ondasunak eta zerbitzuak erostean sortu diren zorrak eta ordaintzeko partidak dira, edo, merkataritza-jatorririk izan gabe, tresna deribatuak ez izanik, Sozietateak jasotako mailegu edo kreditu eragiketetatik datozenak.

Pasibo horiek, hasieran, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera balioesten dira, zuzenean egotz daitezkeen transakzioaren kostuen arabera doituta. Ondoren, pasibo horiek amortizatutako kostuaren arabera balioesten dira.

##### \* Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioak

Ordaindu beharreko zorrak eta partidak, hasieran, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera balioesten dira, zuzenean egotz daitezkeen transakzioaren kostuekin doituta. Ondoren, pasibo horiek amortizatutako kostuaren arabera balioesten dira.

Aktiboak eta pasiboak bereizita aurkezten dira balantzean, eta zenbateko garbian bakarrik aurkezten dira, sozietateak aitortutako zenbatekoak konpentsatzeko eskubide galdagarria duenean eta, gainera, kopuruak garbiaren bidez likidatzeko edo aktiboa egin eta pasiboa aldi berean kitatzeko asmoa dutenean.

Sozietateak baja ematen die finantza-pasiboari, pasiboak sortu dituzten obligazioak amaitzen direnean.

Urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten eragiketa komertzialengatik zorrak beren balio nominalaren arabera baloratuko dira, hasierako unean zein ondoren, diru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez denean.



**f) Sozietateen gaineko zerga**

Sozietateen gaineko Zergaren gastua kalkulatzeko, kontabilitate-emaiztan oinarritzen da, kontabilitate-emaiztaren eta sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarriaren arteko diferentzia iraunkorren eraginez zuzenduta.

Sozietateak dituen kenkarien eta hobarien zenbatekoak murriztu egiten du aplikatzen diren unean sortutako zerga.

**g) Sarrerak eta gastuak**

Diru-sarrerak eta gastuak sortzapenaren printzipioaren arabera erregistratzen dira, kobrantzak edo ordainketak sortzen diren unea edozein dela ere. Hala ere, hilerriak kontserbatu eta mantentzeko tasetatik eratorritako saldoak berreskuratzean sortzen den berankortasun-indize handiaren ondorioz, eta balioespen-zuhurtasunaren printzipioarekin bat etorriz, aipatutako tasak diru-sarrera gisa aitortzen dira kobratzeko unean, eta horrek ez du eragin nabarmenik urteko kontuetan.

**h) Hornidurak eta kontingentziak**

Hornidurak kontabilizatzen dira balantzearen itxiera-datan gaur egungo betebeharrak egiaztatzen direnean, iraganeko gertakarien ondorioz sortuak, eta horiek azkentzeko, baliabide zehatzetatik askatzea espero da, izaerari dagokionez, baina zehaztugabeak zenbatekoari edo ezeztatze-uneari dagokionez.

Administratzaileek kontzeptu horiek kuantifikatzen dituzte une bakoitzean eskuragarri dagoen informazioa kontuan hartuta, betebeharrak bertan behera uzteko edo hirugarren bati transferitzeko behar den zenbatekoaren ahalik eta zenbatespen onenaren balio eguneratuaren arabera, eta ekitaldi bakoitzaren itxieran berrestimatzeko dira, eta betebeharrak horiek izateari uzten diotenean edo murrizten direnean berrikusten dira.

**i) Lotutako alderdien arteko transakzioak**

Urteko kontuak aurkezteari dagokionez, beste enpresa bat taldeko kide dela ulertuko da, biak kontrol-harreman baten bidez lotuta daudenean, Merkataritza Kodearen 42. artikulua, sozietate-taldeentzat.

Loturadun alderdien arteko transakzioak, oro har, arrazoizko balioan baloratzen dira hasieran. Adostutako prezioa eta arrazoizko balioa desberdinak direnean, eragiketaren errealitate ekonomikoaren arabera erregistratzen da aldea. Ondorengo balorazioa kasuan kasuko arauetan aurreikusitakoaren arabera egiten da.



#### **j) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak**

Diru-laguntza itzulgarriak pasibo gisa erregistratzen dira, itzultzekotzat jotzeko baldintzak bete arte; diru-laguntza ez-itzulgarriak, berriz, ondare garbira zuzenean egotzitako diru-sarrera gisa erregistratzen dira, eta diru-sarrera gisa aitortzen dira, sistematikoki eta arrazionalki, diru-laguntzatik eratorritako gastuekin korrelazioan.

Diru-laguntza bat itzuli beharrik gabekotzat joko da diru-laguntza emateko banakako akordio bat dagoenean, diru-laguntza emateko ezarritako baldintza guztiak bete direnean eta kobratuko den arrazoizko zalantzarik ez dagoenean.

Inbertsioekin lotutako itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak ekitaldiko diru-sarrera gisa egotzen dira, aktiboen amortizazioaren proportzioan, edo, hala badagokio, besterentzen direnean, narriaduragatik balio-zuzenketa egiten denean edo balantzean baja ematen denean.

Gastu espezifikoekin lotutako itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak dagozkien gastuak sortzen diren ekitaldian bertan aitortzen dira galdu-irabazien kontuan, eta ematen diren ekitaldian ustiapen-defizita konpentsatzeko emandakoak, salbu eta etorkizuneko ekitaldietako ustiapen-defizita konpentsatzera bideratzen direnean, kasu horretan ekitaldi horietan egotzen baitira.



## 5. OHARRA IBILGETU UKIEZINA

Hona hemen epigrafe hau osatzen duten balioen bilakaera:

	KOSTUAREAN BALIOA				
	22.01.01eko saldoa	Altak (Bajak)	22.12.31ko saldoa	Altak (Bajak)	23.12.31ko saldoa
- Errausketa-labearen erabileraren eskubidea	350.688,89	---	350.688,89	---	350.688,89
- Informatika-aplikazioak	---	---	---	---	---
<b>GUZTIRA</b>	<b>350.688,89</b>	<b>---</b>	<b>350.688,89</b>	<b>---</b>	<b>350.688,89</b>

	AMORTIZAZIO METATUA				
	22.01.01eko saldoa	Gehitzeak	22.12.31ko saldoa	Gehitzeak	23.12.31ko saldoa
- Errausketa-labearen erabileraren eskubidea	142.513,25	6.984,20	149.497,45	7.013,78	156.511,23
- Informatika-aplikazioak	---	---	---	---	---
<b>GUZTIRA</b>	<b>142.513,25</b>	<b>6.984,20</b>	<b>149.497,45</b>	<b>7.013,78</b>	<b>156.511,23</b>

<b>KONTABILITATEKO BALIO GARBIA</b>	<b>208.175,64</b>	<b>201.191,44</b>	<b>194.177,66</b>
-------------------------------------	-------------------	-------------------	-------------------

2. oharrean aipatu den bezala, ibilgetu ukiezinaren elementuen balioa, funtsean, bazkide bakarrak, Donostiako Udalak, Sozietatea eratu zenean egindako diruzkoak ez diren ekarpenetatik dator.



## 6. OHARRA IBILGETU MATERIALA

Ibilgetu materialarekin lotutako kontuen mugimendua honako hau izan da:

	KOSTUAREN BALIOA						
	22.01.01eko saldoa	Altak	Gutxipenak	22.12.31ko saldoa	Altak	Intsuldaketak (Gutxipenak)	23.12.31ko saldoa
- Eraikuntzak	2.386.869,31	---	---	2.386.869,31	---	---	2.386.869,31
- Instalazio teknikoak	412.817,40	---	---	412.817,40	---	---	412.817,40
- Makineria	34.463,25	---	---	34.463,25	---	---	34.463,25
- Altzariak	129.167,52	---	(129.167,52)	---	---	---	---
- Informazioa prozesatzeko ekipoak	6.373,52	2.549,00	(6.373,52)	2.549,00	---	---	2.549,00
- Garraio-elementuak	71.973,09	18.970,79	(7.627,89)	83.315,99	---	---	83.315,99
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.041.664,09</b>	<b>21.519,79</b>	<b>(143.168,93)</b>	<b>2.920.014,95</b>	<b>---</b>	<b>---</b>	<b>2.920.014,95</b>

  

	AMORTIZAZIO METATUAK						
	22.01.01ko saldoa	Gehitzeak	Gutxipenak	22.12.31ko saldoa	Gehitzeak	Intsuldaketak (Gutxipenak)	23.12.31ko saldoa
- Eraikuntzak	824.338,06	60.326,78	---	884.664,84	64.503,07	---	949.167,91
- Instalazio teknikoak	183.297,85	47.872,23	---	231.170,08	34.350,00	---	265.520,08
- Makineria	34.463,25	---	---	34.463,25	---	---	34.463,25
- Altzariak	129.167,52	---	(129.167,52)	---	---	---	---
- Informazioa prozesatzeko ekipoak	6.373,52	584,15	(6.373,52)	584,15	637,25	---	1.218,41
- Garraio-elementuak	54.721,53	15.154,43	(7.627,89)	62.248,07	9.616,70	---	71.867,76
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.232.361,73</b>	<b>123.937,59</b>	<b>(143.168,93)</b>	<b>1.213.130,39</b>	<b>109.107,02</b>	<b>---</b>	<b>1.322.237,41</b>

  

<b>KONTABILITATEKO BALIO GARBIA</b>	<b>1.809.302,36</b>			<b>1.706.884,56</b>			<b>1.597.777,54</b>
---	---------------------	--	--	---------------------	--	--	---------------------

2. oharrean aipatu den bezala, ibilgetu materialeko elementuen balioaren zati handi bat bazkide bakarrak, Donostiako Udalak, Sozietatea eratu zenean egindako diruzkoak ez diren ekarpenetatik dator.

2017ko ekitaldian, 2019an indarrean sartu zen isuri atmosferikoari buruzko euskal araudian izandako aldaketaren ondorioz, Sozietateak erabaki zuen errausketa-labe berri batean eta labeari lotutako isuriak arazteko sistema batean inbertitzea. Inbertsio horren ondorioz, 404 mila euroko azken ordainketa egin da, eta Eusko Jaurlaritzaren 80 mila euroko diru-laguntza jaso dute.



Abenduaren 31n erabat amortizatutako elementuen kontukako xehetasuna honako hau da:

	23.12.31ko kostuaren balioa	22.12.31ko kostuaren balioa
- Instalazio teknikoak	69.317,40	69.317,40
- Makineria	34.463,25	34.463,25
- Garraio-elementuak	27.380,16	27.380,16
<b>GUZTIRA</b>	<b>131.160,81</b>	<b>131.160,81</b>

Sozietatearen politika da balizko arriskuei estaldura emateko beharrezkotzat jotzen diren aseguru-polizak kontratatzea.

Sozietatearen ondasunek ez dute inolako karga edo grabamenik.

Oraindik ez da Jabetza Erregistroan inskribatu errausketa-eraikinaren titulartasuna, Sozietatearen izenean.

## **7. OHARRA FINANTZA-AKTIBOAK**

Egoera-balantzean erregistratutako finantza-tresnen kategorien arabera xehetasuna, balorazio-arauetan araututako sailkapenaren arabera, honako hau da:

	23.12.31ko saldoa	22.12.31ko saldoa
<u>Epe luzerako kostu amortizatuko aktibo finantzarioak</u>	<u>600,00</u>	<u>2.000,00</u>
- Langileei kredituak	600,00	2.000,00
<u>Epe laburreko kostu amortizatuko aktibo finantzarioak</u>	<u>150.868,31</u>	<u>118.300,86</u>
- Salmenta eta zerbitzu ematen dituzten bezeroak	150.868,31	118.300,86
<b>GUZTIRA</b>	<b>151.468,31</b>	<b>120.300,86</b>



## **8. OHARRA BEREZKO FUNTSAK**

### **\* Sozietatearen kapitala**

2023ko abenduaren 31ko kapital soziala, 1.292.100,00 eurokoa, 60 euroko nominala duten 21.535 akziok osatzen dute, Donostiako Udalak erabat harpidetua eta ordaindua diruzkoak ez diren ekarpenen bidez.

### **\* Legezko erreserba**

Indarrean dagoen merkataritza-legeriaren arabera, Sozietateak ekitaldiko mozkinaren %10 legezko erreserbara bideratu beharko du, erreserba hori, gutxienez kapital sozialaren %20ra iritsi arte. Erreserba hori kapitala gehitutako kapitalaren %10 gainditzen duen zatian handitzeko erabili ahal izango da. Helburu horretarako izan ezik, eta Sozietatearen kapitalaren %20 gainditzen ez duen bitartean, erreserba hori galerak konpentsatzeko bakarrik erabili ahal izango da, baldin eta horretarako beste erreserba nahikorik ez badago.

### **\* Beste erreserba batzuk**

Atal hau bat dator erabilera libreko erreserbekin.

Aurreko ekitaldian, 2022ko apirilaren 28an egindako Akziodunen Ohiko Batzar Orokorrak erabaki zuen 400.000,00 euroko dibidendu bat banatzea Borondatezko Erreserben kontura, eta 2022ko maiatzean ordaindu du.

Ekitaldi honetan, Akziodunen Ohiko Batzar Orokorrak, 2023ko maiatzaren 4ean egindako bilkuran, erabaki zuen 400.000,00 euroko dibidendu bat banatzea Borondatezko Erreserben kontura, eta 2023ko maiatzean ordaindu da.



## 9. OHARRA PERIODIFIKATZEAK

Sozietateak hileta-eskubideengatik tituluetatik eratorritako diru-sarrerak periodifikatzen ditu, eskubide horien iraupen-aldiaren arabera. Ekitaldian izan duen bilakaera honako hau izan da:

	Epe laburrera	Epe luzera
2021eko abenduaren 31ko saldoa	62.266,22	707.081,94
. Gehikuntzak	1.396,04	18.415,85
. Emaizetara intsuldaketa	(66.002,20)	---
. Luzetik laburrera intsuldaketa	62.266,23	(62.266,23)
. Finantza eguneraketa	3.735,97	42.402,18
2022ko abenduaren 31ko saldoa	63.662,26	705.633,74
. Gehikuntzak	1.086,47	15.740,74
. Emaizetara intsuldaketa	(67.482,00)	---
. Luzetik laburrera intsuldaketa	63.662,26	(63.662,26)
. Finantza eguneraketa	3.819,74	42.339,38
2023ko abenduaren 31ko saldoa	64.748,73	700.051,60

## 10. OHARRA DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Hona hemen egoera-balantzean agertzen diren itzuli beharrik gabeko kapital-diru-laguntzen xehetasunak:

Erakunde emailea	23.12.31ko saldoa	Xedea
Euskal Autonomia Erkidegoa	32.000,00	Ibilgetu-inbertsioak
<b>GUZTIRA</b>	<b>32.000,00</b>	

Diru-laguntza horiek bilakaera hau izan dute:

	2023
Hasierako saldoa	40.000,00
- Gehikuntzak	---
- Emaizari egoztea	(8.000,00)
Amaierako saldoa	32.000,00



## 11. OHARRA FINANTZA-PASIBOAK

Egoera-balantzean erregistratutako pasibo finantzarioen xehetasuna eta bilakaera, zorren eta ordaintzeko partiden kategoriarri dagozkionak, jarraian aurkezten dira:

	23.12.31ko saldoa	22.12.31ko saldoa
<u>Epe luzerako kostu amortizatuko pasibo finantzarioak</u>	<u>9.569,26</u>	<u>9.483,54</u>
- Beste finantza pasibo batzuk (Jasotako fidantzak)	9.569,26	9.483,54
<u>Epe laburreko kostu amortizatuko pasibo finantzarioak</u>	<u>54.406,62</u>	<u>73.800,12</u>
- Dirulaguntza itzulgarriak	8.257,61	---
- Epe laburreko hornitzaileak	42.923,97	72.093,79
- Hornitzaileak taldeko enpresekin	17,00	1.706,33
- Pertsonala	3.208,04	---

## 12. OHARRA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

Hona hemen Administrazio Publikoekin lotutako saldoen xehetasunak:

	2023	2022
<u>AKTIBO KORRONTEA</u>	<u>1.657,23</u>	<u>64,23</u>
- Foru Ogasuna, BEZagatik zordun	0,25	0,25
- Foru Ogasuna, Sozietateen gaineko Zergatik zordun	1.656,98	63,98
<u>PASIBO KORRONTEA</u>	<u>184.076,09</u>	<u>169.692,92</u>
- Foru Ogasuna, BEZagatik hartzekodun	132.263,68	126.682,33
- Foru Ogasuna, PFEZtik atxikipen hartzekodun	28.646,90	27.425,19
- Gizarte Segurantza hartzekodun	21.982,79	14.090,70
- Elkarkidetza	1.182,72	1.494,70



Ekitaldiko kontabilitate-emaizaren eta Sozietateen Gaineko Zergaren zerga-oinarriaren arteko kontziliazioa honako hau da:

	2023	2022
1. <u>KONTABILITATE-EMAITZA</u>	<u>354.418,56</u>	<u>415.871,17</u>
2. <u>DESBERDINTASUN IRAUNKORRAK</u>	<u>(354.418,56)</u>	<u>(415.871,17)</u>
- Sortutako Sozietateen gaineko Zerga	---	---
- Zerga arloan kengarri ez diren gastuak	(354.418,56)	(415.871,17)
3. <u>ZERGA OINARRIA (Emaizta Fiskala)</u>	<u>---</u>	<u>---</u>

Sozietateen gaineko Zergaren esparruan 2014ko ekitalditik aurrera aplikatu beharreko zerga-araudiaren arabera, Sozietateak errentak ez integratzeko araubide berri bat du, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 39. artikuluan arautua, zeinaren bidez ez baitira zerga-oinarrian sartzen hilerrien eta hileta-jardueren kudeaketan sortutako errentak.

Sozietateak 53.766,24 euroko kenkariak aplikatu behar ditu, aurreko ekitaldietan sortutako mugekin (53.766,24 euro 2022an).

Bestalde, 2023an eta 2022an kapital higigarriaren etekinen gainean jasandako atxikipenen zenbatekoa 1.656,98 eta 63,98 eurokoa izan da.

Zergen likidazioak ezin dira behin betikotzat jo, harik eta agintaritza fiskalek berrikusi arte edo 4 urteko preskripzio-epea igaro arte, Sozietatea eratu zenetik (2001) zerga-ikuskapenaren xede izan ez bada.

Ez da hornidurarik ezarri etorkizunean sor litezkeen gertakari fiskaletarako, une honetan ezezagunak direlako eta, beraz, ezin direlako kuantifikatu; nolana ere, ez da pasibo gehigarri esanguratsurik eratorriko, erantsitako urteko kontuak indargabetu ditzaketarik.



### 13. OHARRA ERAGIKETAK ALDERDI LOTUEKIN

Donostiako Udalarekin batera egoera-balantzean partida hori osatzen duten kontzeptuak honako hauek dira:

	2023	2022
<u>Hornitzaileak, taldeko enprekin eta elkartuekin</u>	<u>17,00</u>	<u>1.706,33</u>
- Zergak eta tasak (ura, saneamenduak, eta abar)	17,00	1.706,33

Sozietateak Donostiako Udalarekin erregistratutako transakzioak honako hauek dira:

Eragiketa	2023	2022
Hilerria erabiltzeko kanona	7.931,20	13.256,00
Beste zerbitzu batzuk	6.606,03	10.331,48
<b>GUZTIRA</b>	<b>14.537,23</b>	<b>23.587,48</b>

### 14. OHARRA SARRERAK ETA GASTUAK

#### \* Hornikuntzak

	2023	2022
<u>Merkantzien kontsumoa</u>	<u>1.957,72</u>	<u>924,78</u>
- Merkantziak erostea	1.619,36	712,32
- Merkantzia izakinen aldaketa	338,36	212,46
<u>Beste batzuek egindako obrak eta zerbitzuak</u>	<u>186.552,42</u>	<u>288.380,67</u>
- Beste enpresa batzuek egindako lanak	186.552,42	288.380,67
<b>GUZTIRA</b>	<b>188.510,14</b>	<b>289.305,45</b>



\* **Langile-gastuak**

	2023	2022
<u>Soldatak, lansariak eta baliokidetuak</u>	<u>508.611,05</u>	<u>535.731,96</u>
<u>Gizarte-kargak</u>	<u>186.447,46</u>	<u>160.637,85</u>
- Pentsioetarako ekarpenak eta zuzkidurak	6.664,86	5.925,38
- Enpresaren konturako Gizarte Segurantzak	177.159,71	151.061,78
- Bestelako gizarte-gastuak	2.622,89	3.650,69
<b>GUZTIRA</b>	<b>695.058,51</b>	<b>696.369,81</b>

\* **Bestelako ustiapen gastuak**

Hona hemen galdu-irabazien kontuko epigrafe hau osatzen duten kontzeptuen xehetasunak:

	2023	2022
- Alokairuak eta kanonak	7.931,20	13.256,00
- Konponketak eta mantentze lanak	100.737,70	22.200,00
- Profesional independenten zerbitzuak	27.945,44	37.424,89
- Aseguru-primak	7.048,79	10.317,36
- Banku-zerbitzuak eta antzekoak	878,12	4.242,16
- Hornidurak	46.511,36	46.795,73
- Beste zerbitzu batzuk	69.793,11	58.889,55
- Beste zerga batzuk	969,23	804,91
- Eragiketa komertzialen ondoriozko galerak, narriadurak eta hornidura-aldaketak	1.124,73	(9.331,63)
<b>GUZTIRA</b>	<b>262.939,68</b>	<b>184.598,97</b>

\* **Negoio-zifra eta ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk**

Hona hemen negozio-zifraren eta ustiapeneko beste diru-sarrera batzuen kontzeptuen araberako xehetasuna, baita ustiapeneko beste diru-sarrera batzuen ere:

	2023	2022
- <u>Negoio-zifraren zenbateko garbia</u>	<u>1.576.446,52</u>	<u>1.682.138,66</u>
Merkantzien salmenta	7.940,01	5.492,58
Zerbitzuak ematea	1.568.506,51	1.676.646,08



## **15. OHARRA BESTELAKO INFORMAZIOA**

Ekitaldian batez beste honako langile hauek egon dira:

	2023		2022	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
- Kudeatzailea	---	1	---	1
- Administrariak	3,25	0,25	4,25	---
- Errausketa-labea	---	1	---	1
- Hilerriko arduraduna	---	1	---	1
- Langileak	---	0,5	---	0,5
- Ehorzleak	---	5,2	---	5
<b>GUZTIRA</b>	<b>3,25</b>	<b>8,95</b>	<b>4,25</b>	<b>8,5</b>

Administratzaileek ez dute inolako ordainsaririk jasotzen Sozietatetik.

Ez dago Administratzaileen edo Goi-Zuzendaritzako kideen aldeko aurrerakinik, krediturik edo pentsio-betebeharririk.

Jasotako dirulaguntzak Donostiako Udalaren 41.854,85 eurokoak dira.

Administratzaileek ez dute aurkitu, ez beren izenean, ez haiekin lotutako pertsonen jardueragatik, Kapital Sozietateei buruzko Legearen Testu Bateginaren 228. artikulutik 231.era aipatzen diren Sozietatearen interes-gatazkako egoeretako ezeinetan (Gobernu Korporatiboa Hobetzeko abenduaren 3ko 31/2014 Legeak aldatu zuen testu bategin hori).

1. oharrean adierazten den bezala, Sozietatearen kapital osoa Donostiako Udalarena da. Hori dela eta, Sozietatean ez dago Goi-Zuzendaritzakotzat har daitekeen langilerik, enpresako arloetan erantzukizuna duten pertsonen bazkide bakarrak izendatutako administratzaileek emandako jarraibideak betetzen baitituzte.

2023ko eta 2022ko ekitaldietako ikuskaritzei dagokien ordainsaria 2.950,00 eta 2.950,00 eurokoa izan da, hurrenez hurren.



**DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN**

Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.  
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.

Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus  
20012 Donostia / San Sebastián

## **16. OHARRA HORNITZAILEEI EGINDAKO ORDAINKETEN EPEEN BURUZKO INFORMAZIOA**

Sozietateak hornitzaileei ordaintzeko egiten dituen epeek bete egiten dituzte merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legean ezarritako mugak.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea, 15/2010 Legean aurreikusitakoa, honako hau da, eta 2016ko otsailaren 4an argitaratutako Estatuko Aldizkari Ofizialaren xedapenaren arabera, honela zehazten da:

	2023	2022
	Egunak	Egunak
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia	22,00	28,84



**DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN**

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.  
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.

Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus  
20012 Donostia / San Sebastián

DONOSTIA HILETA ZERBITZUAK, S.A.ko Administrazioaileek erantsitako 2023ko ekitaldiko urteko kontu laburtuak egin dituzte.

Era berean, dokumentu hau sinatu dute, eta erantsitako urteko kontuen parte da.

Izp.: Eneko Goia Laso Jna.  
N.A.N.: 35.775.793-Y

Izp.: Juan Ramón Viles Mitxelena Jna.  
N.A.N.: 15.995.787-T

Izp.: Roke Alday del Valle de Lersundi Jna.  
N.A.N.: 35.779.897-Q

Izp.: Carlos García Hernández Jna.  
N.A.N.: 44.132.235-L

Izp.: David de Miguel Les Jna.  
N.A.N.: 73.114.889-M

Izp.: Ricardo Burutarán Ferre Jna.  
N.A.N.: 34.105.447-N

Izp.: Itziar Iturri Arrazola And.  
N.A.N.: 44.160.600-W

Izp.: Pedro Cipriano Lasheras Cuenca Jna.  
N.A.N.: 72.507.207-Y

Izp.: Joanes Emilio Fiel Echeverria Jna.  
N.A.N.: 72.483.343-Q

Donostia-San Sebastián, 2024ko martxoaren 22a.